


INFLAZIOA

Prezioek behera egiten jarraitzen dute, azaroan hamarren bat jaitsi ondoren

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Espainiako Estatistikako Institutuak (INE) argitaratutako azken datuen arabera, azaroko KPI indizea $-0,6\%$ izan zen, eta zortzi hilabete jarraian kokatu da balio negatiboetan. Bilakaera horretan eragina izan zuten, alde batetik, elektrizitatearen prezioek aurreko aldietako beherakada arintzeak, eta, bestetik, elikagaien prezioek beherakada izateak.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2018	2019	2020ko azaroa	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	1,6	1,0	-0,6	-0,6
Azpiko inflazioa (%81,2)	0,9	1,0	0,2	0,2
- Elikagai landuak (%13,9)	0,9	0,6	1,0	0,1
- Industria ondasunak (%24,4)	-0,1	0,3	0,0	0,0
- Zerbitzuak (%42,9)	1,5	1,6	0,1	0,1
Hondar inflazioa (%18,8)	4,6	0,8	-4,2	-0,8
- Landu gabeko janariak (%7,8)	2,9	1,3	2,9	0,2
- Energia (%11,0)	5,9	0,4	-9,1	-1,0


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko



Horiek horrela, KPlaren bilakaeran goranzko eragin handiena izan zuen taldea etxebizitza izan zen, $-1,9\%$ ko aldakuntza jaso baitzuen, hots, aurreko hilekoa baino ia puntu eta erdi handiagoa, elektrizitatearen prezioen igoeragatik eta, neurri txikiagoan, berokuntzarako gasolioaren prezioen igoeragatik. Azken horiei petrolioaren prezioen bilakaerak eragin zien, eta igoera nabarmena izan zuen azken egunetan. Martxoaren hasieratik prezio maximoak eskuratu zituen. Jakina, petrolioari ari da aktiborik onuragarrienetako bat

izaten txertoaren hedapenarekin, horrek mugikortasunaren hazkundean ekar dezakeen guztia-gatik, eta, horrela, lehengai horren eskaria handitzen ari da. Aitzitik, elikagaien eta alkoholik gabeko edarien taldea eragin negatiboagatik nabarmendu zen, urriko datuekin alderatuta sei hamarren murriztu eta $1,9\%$ an kokatu ondoren, fruta freskoen eta beste osagai batzuen (arraina eta itsaskia, adibidez) eta lekaleen eta barazkien prezioen beherakadaren ondorioz.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2020ko azaroa

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	-0,5	-0,8	-0,3
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,5	2,3	1,7
Edari alkoholikak eta tabakoa	0,1	0,5	3,3
Jantziak eta oinetakoak	0,9	1,0	-0,5
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-3,2	-3,6	-1,2
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,2	0,3	0,1
Osasuna	0,4	0,3	0,3
Garraioa	-5,0	-5,1	-3,5
Komunikazioak	-4,1	-4,2	-3,0
Aisia eta kultura	-1,3	-0,7	0,0
Hezkuntza	0,2	-0,2	-0,1
Jatetxeak eta hotelak	1,5	0,3	0,5
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,0	1,4	1,4

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.